

HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA

2025eko BURUILAREN 29a

Kontseilarien kopurua	15	Bi mila eta hogeita bosgarren urtean, buruilaren hogeita bederatzian, arratseko zortzietan, Baigorriko Herriko Kontseilua bildu da, Herriko Etxean, jaun auzapezak deiturik. Dei hori 2025eko buruilaren 24an afixatua izan zen eta 2024ko buruilaren 24an posta elektronikoz igorria. Antton CURUTCHARRY bilkuraburu zen.
Hor zirenak	14	
Bozkatzaileak	14	

Hor zirenak: ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean Paul jauna, BIDART Pierre, Betti, jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DEGUIRAUD Hélène anderea, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea eta OLÇOMENDY Betti jauna.

Ahalordea(k): COSCARAT Jean-Mihel jaunak ahalordea emana zakon CURUTCHARRY Antton jaunari

Falta zirenak:

Bilkurako idazkaria izendatu da: BIBES Jean Paul jauna

Parte-hartzaileak errezibitu eta quoruma bazela egiaztatu ondotik, Bilkuraburuak proposatu du gai zerrenda hau aztertzea:

Aipagaiak

- EGETBren (Euskal Elkargoa) 2025eko buruilaren 17ko erabakien onartzea
- Euskal Elkargoaren Kontrol Zerbitzuari kidetzeko funtsen onartzea.
- Zaldarriaga-Çuburu etxearen salmenta HSA erakundeari
- TE64ren argi publikoen programa. Herri partearen finantzamendua.
- Mozioaren hautua, E-CHO (gure oihanen zaintzea)
- Gai orotarik

0. AITZINEKO BILKURAREN BILDUMAREN ONARTZEA

Gai zerrendako gaiak eztabaidatu aitzin, Herriko Kontseiluak 2025eko agorrilaren 26ko bilkuraren bilduma onartu du.

3- 2025-42 DELIBEROA - ESKUALDATU GASTUAK EBALUATZEKO EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOKO TOKIKO BATZORDEAREN (EGETB) 1. ETA 2. TXOSTENEN ONARTZEA – 5.7 NOMENKLATURA

Kontuan harturik Lurralde Elkargoen Kode Orokorra;

Zergen Kode Nagusiaren arabera, eta bereziki 1609 nonies C artikulua;

Elkargo Kontseiluaren 2020ko uztailaren 31ko deliberoaren arabera, Euskal Hirigune Elkargoko Eskualdatu Gastuak Ebaluatzeako Elkargoko Tokiko Batzordearen (EGETB) osaketa finkatzen duena,

Euskal Hirigune Elkargoko lehendakariaren 2025eko ekainaren 2ko erabakiaren arabera, EGETBko kideen zerrenda berritzen duena;

EGETBk 2025eko irailaren 17an finkatu 1. eta 2. txostenen arabera, Lan Eremuei (LE) eta Interes Orokorreko Bideei (IOB) dagozkien kargen eskualdatzeen ebaluazioei buruzkoa;

Txostengilearen aurkezpena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak:

- **ONARTU** ditu EGEBTren 2025eko irailaren 17ko 1. eta 2. txostenak, dokumentu honi atxikiak direnak;
- **BAIMENDU** du jaun auzapeza beharrezko desmartzen egitera delibero honen aplikatzeko, baita ere afera horri doakion dokumentu oro izenpetzera.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

2- 2025-43. DELIBEROA – OBREN BUKAERA ETA SEGIMENDUA KONTROLATZEKO ZERBITZU KOMUNAREN ESKU HARTZE EREMUAREN ZABALTZEA – 2.1 NOMENKLATURA

Auzapezak biltzarrari oroitarazi dio Euskal Hirigune Elkargoak, bere lurraldeko 99 herrien izenean, lurren erabilera eta okupazio baimen-eskaeren ikerketa kudeatzen duela orain, Elkargo Kontseiluaren 2017ko abenduaren 16ko deliberoaren bidez sortu zerbitzu komunaren kariatara.

Jaun auzapezak puntu hauek ere zehaztu ditu:

Doazkien dosierren kudeaketa arautzeko egin hitzarmenak aplikatuz, herriek galdeak aurkezteko eta erregistratzeko faseari dagozkion urratsen ardura izaten segitzen dute, baita ere erabakiak hartzeko prozesuaren eta galdetzaileei erabakiak jakinarazteko prozesuaren ardura.

Hirigintza baimenen ikertzeko zerbitzuak burutzen dituen eginkizunen eta obren araberakotasunaren kontrol eta segimendu operazioen arteko lotura kontuan harturik, 2021eko urriaren 2ko Elkargo Kontseiluak "araberakotasun-kontrol" zerbitzu komun bat sortzearen alde bozkatu zuen, Hazparnealdean esperimintatzeko.

Herri batzuk –Hazparnealdetik kanpo–, horrelako zerbitzu bat ukaiteko alde agertu dira.

Eskari hauei guzietan erantzuteko, 2023ko uztailaren 1eko Elkargo Kontseiluak erabaki zuen zerbitzu komun horren esku hartze eremua zabaltzea, hiru eginkizun hauetan oinarritu hitzarmena proposatuz:

- 1. eginkizun mota: hirigintza-baimen baten kariatara egin obren kontrola;
- 2. eginkizun mota: baimenik gabe egin obren kontrola;
- 3. eginkizun mota: obren segipena

Ikusirik Lurralde Elkargoen Kode Orokorra, eta bereziki L. 5211-4-2 artikulua, zeinak, eskualdatu eskumenetatik kanpo, bere zerga sistema duen Herriarteko Lankidetzarako Erakunde Publiko (HELEP) bati eta kide dituen herri bati edo gehiagori zerbitzu komun bat ezartzeko parada uzten dien, eginkizun funtzionalak edo operatiboak betetzeko herriaren edo Estatuaren izenean, auzapezek hartu erabakien instrukzioa barne;

Ikusirik Hirigintza Kodea, eta bereziki hirigintza eskaeren instrukzioa bateratzeari buruzko R. 410-5 eta R. 423-15 artikulua, baita Hirigintza Kodearen arau-hausteak egiaztatzeko moldeei buruzko L. 480-1etik L. 480-5era eta L. 610-1etik L. 610-3ra arteko artikulua ere, eraikuntza edo antolamendu obren bukaerari eta ikuskapenari buruzko R. 462-1 artikulua eta ondokoak;

Ikusirik Euskal Hirigune Elkargoko 2017ko abenduaren 16ko Elkargo Kontseilua, lur-eskubidearen baimenen instrukziorako zerbitzu komuna sortzeko;

Ikusirik Euskal Hirigune Elkargoko 2021eko urriaren 2ko Elkargo Kontseiluaren erabakia, zeinaren bidez Hazparnealdean "araberakotasun-kontrol" zerbitzu komun bat sortzea erabaki den esperimentazio gisa;

Ikusirik Euskal Hirigune Elkargoko 2023ko uztailaren 1eko Elkargo Kontseiluaren erabakia, zeinaren bidez obren bukaera eta segipena kontrolatzeko zerbitzu komunaren esku-hartze eremua zabaldu den;

Ikusirik proposatu finantza-moldeak eta hirigintza-baimenen araberakotasun-kontrolari eta obren segimenduari buruzko hitzarmen proiektua;

Kontuan harturik Euskal Hirigune Elkargoko hirigintza-baimenen instrukzio-zerbitzuak bete eginkizunen eta obren araberakotasun-kontrol eta segimendu operazioak;

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan,

- Obren araberakotasun-kontrolerako eta segimendurako zerbitzu komunari kidetzearen **ALDE AGERTU DA;**
- **ONARTU du** atxikirik den hitzarmena eta dagozkion prezioak, eta zehaztua da kontrolak eginen direla herriaren eskari bidea eta egin galdeari erantzuteko herriak duen gaitasunaren arabera;
- **BAIMENA eman dio** jaun auzapezari edo haren ordezkoiari gorago aipatu hitzarmena izenpetzeko;
- **BAIMENA eman** dio jaun auzapezari edo haren ordezkoiari gastu oro egiteko eta hitzarmen honen obratzeko behar diren erabaki ororen hartzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

3- 2025-44. DELIBEROA - BAIGORRIKO HERRIAK ZALDARRIAGA ETXEA (ÇUBURU) SALTZEA HABITAT SUD ATLANTIQUE ERAKUNDEARI – 3.2 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak biltzarrari egitate hauek oroitarazi dizkio:

2020ko ekainaren 12ko deliberoaren bidez, Herriko Kontseiluak erabaki zuen desjabetze-prozedura bat obratzea onura publikoa dela kausa, 220 m²-ko azalerako eta hiru estaiko Çuburu etxeari dagokionez; hori Behereko Karrikan kokatua da, kadastrako AC 64 lursailean, eta 400 m²-ko azalera du.

2021eko abenduaren 17ko Herriko Kontseiluan erran zen begi bistakoa zela jabetza hori bazterrera utzia zela eta erabaki zen auzapezari prozedura segitzeko ardura ematea, alokairu sozialeko bi bizitegi sortzeko eta ere saltegi bat edo zerbitzu-jarduera baterako egoitza bat.

Pirinio Atlantikoetako prefetak 2022ko apirilaren 26an erabaki bat hartu zuen, eta desjabetze agindua eman zen Paueko justizia zibileko auzitegian 2022ko urriaren 7an.

Herriak Habitat Sud Atlantique (HSA) erakundeari eman zion herri erdiko Çuburu etxean bizileku programa bat aztertzeke ardura.

Hastapenean, HSAk aurkeztu lehenbiziko proiektua T3 motako alokairuko 2 bizitegi sozialez eta jarduera-egoitza batez osatua zen, azken hau berritzekoa zen herriaren izenean eta obragintza hitzarmen baten bidez.

HSarendako erosketa prezioa **34 000 eurotan** finkatu zen, 2020ko azaroaren 1eko 2020 64477V0768 abisuan oinarriturik, 2021eko abenduaren 9an luzatua Herriko Etxearen izenean, desjabetzearen karietara.

2025eko BURUILAREN 29ko BILDUMA

Ondotik, zirriborro zenbait aurkeztu zaizkio herriari.

Atxiki den bertsioa aurtikitze-berreraikitze proiektuarena da, eraikinaren egituraren diagnostikoak erakutsi baitu biziki andeatua dela. Programaren baitan alokairuko 4 bizitegi sozial (2 IALM eta 2 ESAM) egitekoak dira tokiko eskaera nagusia asetzeko. Etxe beherea bi eta lau gurpileko ibilgailuendako aparkaleku bat egiteko antolatuko da, baita soto pribatuak egiteko ere.

Aitzinetik HSArekin negoziatu finantza-baldintzak atxikitzea adostu zen, eta horiek HSAk Pirinio Atlantikoetako prefetaren dekretuaren eta Paueko justizia zibileko auzitegiaren desjabetze-aginduaren arabera ordaindu 34.000 €-ko herenkako ordainsariaren bezala-bezalakoak dira.

2022an, herri erdian kokatu interes orokorreko proiektu horrek 118 366 €-ko dirulaguntza kausitu zuen Frantziako Lur alfer Funtsetik, Suspertze Itunaren ondorioz. HSAk du dirulaguntza hori ukanen; eskuratze eta aurtikitze-berreraikitze kostuen parte bati dagokio.

Aurtikitze baimena 2025eko ekainaren 30ean eman zen eta eraikitze-baimen bat aurkeztuko da 2025eko urrian.

Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

ONARTU ditu HSArekin egin beharreko transakzio baldintzak,

- **ONARTU DU** Baigorriko herriarena den eraikin hori HSArri eskualdatzea; Behereko Karrikan kokatua da, kadastrako AC 64 lursailean, 400 m² inguruko azalera du, **34 000 €**-ko prezioan, alokairuko 4 bizitegi sozial dituen proiektu baterako, aurtikitze-berreraikitze bidez.

- **BAIMENA eman dio** HSArri proiektu honetarako beharrezkoak diren baimen-eskaera guziak aurkezteko eta ondotik kausitu baimenak argitaratzeko.

- **BAIMENA eman dio** jaun auzapezari edo haren ordezkoiari notario-agiriak izenpetzeko baita ere eskualdaketa hau ahalbidetzen duten dokumentu guziak sinatzeko, herri erdian aurtikitze-berreraikitze bidezko alokairu sozialeko bizitegi operazio bat egiteko xedez.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

4- 2025-45 DELIBEROA – “SUSPERTZE PLANA – ORDULARI ASTRONOMIKO KOMUNIKATUAK 2022” PROGRAMA. PROIEKTUAREN ETA HERRI PARTEAREN FINANTZAMENDUAREN ONARTZEA 25REP038. GAIA – 9.1 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazi dio Pirinio Atlantikoetako Energia Lurraldeari galdatu diola obra hauetarako ikerketa egitea: **Ordulari konektatuen instalazioa**

Pirinio Atlantikoetako Energia Lurraldeko lehendakari jaunak herriari jakinarazi dio obretarako zer kostu estimatzen den. Obrak ETPM enpresak egingen ditu.

Jaun auzapezak zehaztu du obra horiek "Suspertze plana – Ordulari astronomiko komunikatuak 2022" Landako Elektrifikazio Programaren barne direla, eta Herriko Kontseiluari proposatu dio gastuaren zenbatekoa onartzea eta obra horien finantzamendua bozkatzea.

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan:

ERABAKI du gorago aipatu obrak egitea, eta Pirinio Atlantikoetako Energia Lurraldeari obrak egiteko ardura eman dio.

ONARTU du obren zenbatekoa eta dagozkien gastuak:

Obren zenbatekoa BEZa barne	44 183.16 €
Obragintzako laguntza, obralaritza eta ezusteak	4 418.32 €
TE64ren kudeaketa gastuak	2 209.16 €
OROTARA	50 810.64 €

ONARTU du operaziorako aurreikusi finantzamendu plana:

FACEn parte hartzea	32 400.98 €
BEZaren ordainsari funtsa (TE64k berreskuratzekoa)	7 972.59 €
Herriko Etxeak obretan parte hartzea, funts libreekin finantzatzekoa	8 227.91 €
Herriko Etxearen parte hartzea kudeaketa gastuetan (funts libreekin finantzatzekoa)	2 209.16 €
OROTARA	50 810.64 €

2024-28 deliberoak TE 64k hartu maileguaren bidez obren herri-parte (kudeaketa gastuez kanpo) finantzatu nahi duten herriek mailegua ukaiteko baldintzak finkatzen ditu. Horrela, gutieneko muga finkatua da herriko biztanle kopuruaren arabera. Hemendik aitzina taula hau aplikatu daiteke:

Herriko biztanle kopurua	Mailegua ukaiteko gutieneko muga
2 000 biztanle edo gehiago	10 000€
1 000 eta 1 999 biztanleren artean	5 000 €
999 biztanle edo gutiago	2 500€

Herriaren behin betiko parte hartzea finkatuko da obren behin betiko zenbaketa egin ondoan.

Gainera, herriak bere parte hartzea "funts libreekin" finantzatzen baldin badu, TE64k zati ordainketa bat edo gehiago galdegiten ahalko dizkio, egin obren arabera.

TRANSMITITU dio delibero hau legezkotasun kontrolari.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

6- 2025-46. DELIBEROA – IPAR EUSKAL HERRIKO OIHAN BALIABIDEEN ZAINZARAKO ETA E-CHO PROIEKTUAREN ONDORIOZ EUSKAL OIHANEAN BIOMASA KENTZEEN KONTRAKO MOZIOA – 9.1 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak biltzarrari oroitarazi dio 2021eko ekainaren 19an bozkatu Klima Planaren helburuen arabera, Euskal Elkargoak nahi duela euskal oihan-ingurunea zaindu eta balorizatu. Ekintza horrek lurraldeko berokuntza-sareen garapenarekin bat egiten du; hauek energia berriztagarrien erabilera oinarritzen dira, hala nola egur-energia.

Helburu horiek betetzeko, CAPSek Lurraldeko Egur Hornikuntza Plana eraman du eta, 2024az geroztik, lurraldeko eragile guziekin, Ipar Euskal Herriko Oihanaren Gutunaren desmarta animatzen du. Lurraldeko Hornikuntza Planari esker dauden edo etorkizuneko berogailu sareetan balorizatu egurraren potentziala, ustiapen eta mobilizazio kostuak identifikatu dira. Urtean 286 000 tonako ekoizpen hori beharrezkoa dela agertu da lurraldeko berogailu sareak hornitzeko, bai daudenak bai etorkizunekoak.

Jaun auzapezak zehaztasunak eman ditu E-CHO proiektuari buruz.

E-CHO proiektua

Elyse Energy enpresak 2023. urte bukaeran E-CHO proiektua abiatu zuen: Lacqeko industria-arroan karbono urriko molekulak ekoizteko 3 unitate dira. Unitate batean urtean 87 000 tona e-biokeroseno ekoizten dira (aire-garraiorako erregaia), urtean 28 000 tona e-bionafta (kimika berdean erabilia erregaietarako), eta urtean 60 000 tona hidrogeno beste bi guneetako prozesuetan erabiliko direnak. Hornikuntzari dagokionez, Elyse Energy enpresak estimatu du urtean 300 000 tona biomasa behar dituela eta gunearen 200 km-ko inguruan dauden tokiko oihanetako egurra erabiltzea aurreikusten du.

Ipar Euskal Herriko oihanak proiektu horren eremuaren barne dira. Bilkura publiko bat egin zen Baionan 2025eko otsailaren 3an. Biarron oinarritua den proiektu horrek Ipar Euskal Herriko hautetsiei kezka handia sortzen die gure lurraldea ere barne hartzen baitu bere hornidura-eremuan, eta arrazoi hauengatik ere bai:

- Ipar Euskal Herriko oihanaren ustiatzea. Proiektu horrek, nahitaez, Oihanen Gutunak sustatu egur baliabidearen tokiko kudeaketa estrategia iraunkor eta zentzudunean eragina ukanen du. Oihan ustiapenaren ekonomia kordokaraziko du, merkatu-prezioak baino gorago diren eros-prezioak aplikatuko baititu. Konkurrentzia zuzenean ezarriko da dauden berokuntza-sareen eta egur-energian bermatu sare berrien hornidurarekin. Hain denbora guttitan kontsumitu egur-bolumen handi horren mobilizazioak oihanen kudeaketan ere eragina izanen du, mozketa garbiak eta oportunistak sustatuz, kudeaketa iraunkor eta batestuen kaltetan.

- Ur-baliabidearen erabilera handia, ura gero eta eskasago den testuinguru batean. Proiektuak 3,5 milioi m³ ur inguru behar ditu Uhaitza ibaitik. Ur hori prozesuan erabiliko da eta gero tenperatura goragokoan berriz isuriko. Ur-baliabidearen erabilera hori ere kezkarria da Adour-Garonne Ur Agentziarentzat. Ur-baliabidearen arazoaz gain, proiektuak ingurumenean ere eragin handia izanen du, bereziki ur gutiko denboraldietan.

Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak goraki erran nahi izan du:

- - Ipar Euskal Herriko baliabideak (oihana, ura) **babestu nahi dituela** lurraldearen erresilientzia bermatzeko (karbonoa, baliabideak, bioaniztasuna).
- - Proiektu horrek lurraldeko beste proiektuekin sortuko duen konkurrentziaren **kezka**.

Epaia horrela agertu du:

- Estatuak klima aldaketari buruz eman aginduak betetzen dituen oihan-baliabideen lurralde-kudeaketaren **ALDE**; Estatuak Klima Planen koordinazioa harriartean esku utzi du.

-ELYSE ENERGY enpresak eraman E-CHO Proiektuak euskal oihanetatik biomasa biltzearen **KONTRA**, aurreikusi egur bolumenagatik, tokiko proiektuekin duen konkurrentziagatik eta Ipar Euskal Herriko biomasan duen eraginagatik.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

AUZAPEZAK HARTU ERABAKIEN BILDUMA:

/

GAI OROTARIK

!

Hor zirenen zerrenda:

ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean-Paul jauna, BIDART Pierre, Betti, jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DEGUIRAUD Hélène anderea, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea eta OLÇOMENDY Betti jauna.

Bilkuran hartu deliberoak 42tik 46ra zenbaituak ziren.

<u>Auzapezaren izenpedura:</u>	<u>Bilkurako idazkariaren izendatzea:</u>